

# ahō MyTTS

## Gorde zure ahotsa

1 Izena eman

1

2 Grabatu eta ahotsa sortu

2

3

3 Deskargatu ahotsa zure dispositiboan



**AhoMyTTS** plataformak aukera ematen die erabiltzaileei ahots sintetiko pertsonalizatu bat sortzeko beren ahots-grabazioetatik abiatuta. Tresna hau bereziki erabilgarria da mintzamenaren urritasuna duten, ahotsa galdu duten edo galduko duten pertsonentzat, komunikatzeko modu bat ematen baitie, berearen antza duen digitalki sortutako ahots bat erabiliz.




**Zure ahots sintetiko pertsonalizatua lortzea oso erraza da, 3 urrats hauek jarraitu besterik ez duzu egin behar**

## 1 AhoMyTTS-en izena eman

AhoMyTTS erabiltzen hasteko, sartu hona: <https://banocodevoces.org> eta eman izena baliozko korreo helbide elektronikoko batekin.

## 2 Grabatu eta ahotsa sortu

Sartu zure <https://banocodevoces.org> kontuan ordenagailu batetik, eta hautatu "Grabatu nire ahotsa" menu nagusian, grabatzen hasteko. Hautatu zer hizkuntzatan grabatu nahi duzun, eta sakatu "Jarraitu" botoia. Google Chrome erabiltzea gomendatzen da, eta grabazioak ingurune isil batean egitea, azulejodun gelak edo altzari gutxi dituzten gelak saihestuz, erreberberazioa saihesteko. Lortzen den ahotsaren kalitatea, neurri handi batean, egiten dituzun grabazioen kalitatearen arabera da.

Agertuko diren esaldietan, sakatu  botoia, eta irakurri esaldia ahots argiz. Sakatu  botoia, eta entzun grabatutakoa,  sakatuta. Ondo badago, sakatu "Bidali" botoia, eta joan hurrengo esaldira.

Prozesu osoak 30 eta 60 minutu bitartean irau dezake. **Gomendagarria den arren, ez da beharrezkoa grabaketa prozesua egun bakar batean osatzea.**

Webguneak automatikoki gordeko ditu grabatutako audioak; beraz, sartzen zaren hurrengoan utzi zenuen lekutik berrekin ahal izango diozu.

## 3 Deskargatu ahotsa zure dispositiboan

Sartu zure <https://banocodevoces.org> kontuan eta "Ahots Bankua" aukeran zure ahots pertsonalizatua eta bankukoak probatzeko. Aukeratu zure ahots gogokoena. Ondoren, sakatu "Nire ahots pertsonalizatua erabili nire gailuetan", eta jarraitu jarraibideak zure Android edo Windows aplikazioa instalatzeko.